


AGAMI

ARRASATEKO GAZTETXOEN I. MENDI IRTEERA

2025 - Urriak 11



IBILBIDE LUZEA: 9,1Km IBILBIDE MOTZA: 6 Km

Irteera eta amaiera:  9,30 BITERI

1.Kontrola,  Meatzerreka
2.Kontrola,  Udala (luzea)
Anoa  BITERI



Hasiera
Amaiera

BITERI



Gipuzkoako
Mendizale
Federazioa



BESAIDE
MENDIZALE ELKARTEA



euzko mendizale federazioa
FEDERACION VASCA DE MONTANA
EUSKAL MONTAINGARREN FEDERAZIOA

PARTE HARTZEKO OINARRIAK



1. Noiz: Ibilaldia 2025eko urriaren 11n izango da, eta doakoa da.
2. Nori zuzenduta: 6-12 urte bitarteko Arrasatear gaztetxoek hartu dezakete parte.
3. Helburua: Mendi martxa honen helburua mendi giroan lagunarteaz gozatzea da.
4. Ez da lasterketa bat, martxa bat baizik.
5. Ordutegia: Arrasateko Biteri plazan hasiko da 9:30tan, eta leku berean amaituko da, 13:30tan.
6. Anoa: 12:00ak eta 13:30ak bitartean txokolatea banatuko da Biterin parte hartzaile guztien artean.
7. Ibilbidea: Bi ibilbide egongo dira aukeran: Motza (6Km), eta luzea (9Km).
8. Ibilbide luzea egiteko asmoa dutenek, 10:45etarako Meatzerrekako kontrol gunetik pasata egon beharko dute.
9. Izen ematea: Aldez aurretik <https://forms.gle/Ckb9WZhobv3XQDHh9> Irailak 8a baino lehen edo egunean bertan Biteri plazan, 9:00-9:30ak bitartean.
10. Partaideak: Talde bakoitza heldu bat eta gehienez 5 umez osatua egongo da. Helduak izango du bere taldearen ardura ibilbide guztian zehar.
11. Harrera: Ibiltariak martxa hasteko, taldearen parte-hartzea baieztatu eta ibilbideko kontrol txartela jaso beharko dute harrera mahaietan. Talde bereko partaideak bereiztuta bertaratzen baldin badira, denak elkartu arte itxaron beharko dute parte hartzea baieztatzeke.
12. Kontrolak: Talde bakoitzak kontrol txartel bana eramango du eta kontrol puntuetan erakutsi beharko du.
13. Nork bere hamaiketakoa eraman beharko du (jana eta edana). Hori dela eta, ezinbestekoa da ume bakoitzak motxila bana eramatea, nork berea.
14. Bidean zehar jarritako seinaleak errespetatu behar dira. Seinalizazioa aldatzen duten taldeak mendi martxatik kanpo geldituko dira.
15. Partaideek sortzen duten zaborra beren motxilan jaso edo antolatzaileek jarritako ontzi edo poltsetan utzi beharko dute.
16. Jarduera publikoa izanik, bai prentsa baita Federazio zein elkarte antolatzaileak irudiak hartu ahalko ditu jardueraren zabalkundea egiteko. Hala ere, umeen arduradunak irudi hoiek ez publikatzea eskatzeko eskubidea izango du.
17. Ibilaldian izena emateak oinarri hauetako puntu guztiak onartzea dakar.